

Hezkidetza eta Pedagogia Feministen III. Kongresua

Ezagutza kokatuetatik irakurketa globalera

GAKOEN LABURPENA

Creative Commons:

Atribución/Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional Deed

 **CC BY-NC-SA 4.0**

Egilea:

Assumpta Ayerdi Olaizola [Sorginlore]

Diseinua:

Ainara Jimenez Iñarra [Sorginlore] eta Goretti Aranburu Epelde [TaPuntu]

Lan taldea:



Babesleak:



Edukiak

Sarrera

Pedagogia feministak indarkeria matxistei aurre egiteko

Patriarkatua desarmatzen hezkuntzatik
eta pedagogia feministen bitartez.....7-8

Emakume eta Identitate Disidenteen
ahalduntzea esparru intimoan.....8-9

Protokolo gorpuztuak: Komunitatean,
hezkuntzan eta kirolean.....10

Txokoak.....11-14

Ondorio orokorrak

Herri Hezkidetzaileak

Herri Hezkidetzaileak,
nola ulertzen ditugu?.....16

Komunitate birtualak:
aukerak eta mugak.....17

Estrategia Komunitario
Antirrazistak eta Feministak.....18-19

Txokoak.....20-23



Sarrera

2025eko ekainean izan zen Hezkidetza eta Pedagogia Feministen III.

Kongresua Donostian. Senti-pentsatzeko topaketarako gune bat izan zen; 200 pertsona elkartu ginen, besteak beste, hezkuntza formaleko irakasleak, hezkuntza ez-formaleko hezitzaileak eta administrazio publikoko langile teknikoak (berdintasuna, gazteria, hezkuntza, partaidetza, lankidetza...).

Kongresu hau honako 15 ekimen, **elkarte eta erakundek** sortu, desiratu eta planifikatu dugu:

Sorginlore, Ikertze, Emagin, Hiruki Larroxa, UEU, UNA (Costa Ricako Unibertsitate Nazionala) - División de Educación Rural, Donostiako Udala (Lankidetza, Gazteria eta Berdintasun departamentuak), TBK Hezkuntza - Artaziak, Gandere – EHUKo ikerketa taldea, Alboan, Donostia-Irun Berritzegunea eta Biltzen.

Garapenerako eta Solidaritaterako eLankidetza Euskal Agentziaren, Donostiako Udaleko Lankidetza Bulegoaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lankidetza sailaren laguntza izan du.

Tokiko jakintza eta esperientzien truketik, horien irakurketa globaletik eta egungo testuinguruan kokatzetik abiatuz, hausnarketa sakondu, energia kolektiboa sortu eta estrategiak indartu nahi izan ditu.

Elkarreragina zuten bi bloketan zatituta egon zen programa:

- 1) Patriarkatua desarmatzeko eta indarkeria matxistari aurre egiteko pedagogia feministen ibilbidea eta potentziala aztertzea: batetik, protokoloak (komunitatearen esparruan, hezkuntzan eta kirolean), bestetik, emakumeen eta identitate disidenteek ahaldundutze intimoa eta, azkenik, gizonen eta beste egitura batzuen arteko aliantza.
- 2) Herri hezkidetzaleei buruz hitz egiteko aukerari buruzko hausnarketa hainbat esperientzia kolektiboren bidez eta hainbat dimentsiotan: komunitate birtualak, estrategia komunitario antirrazistak eta feministak, rolak eta pertsona hezitzaile erreferenteen boterea.

Horiez guztiez hitz egiteko eta hainbat formatutan parte hartzeko aukera izan zen: hitzaldiak, mahai-inguruak, podcasta, kafe-tertuliak, tailerrak, txokoak eta EHUKo eta UEUko ikasleen ikerkuntzen aurkezpenak.

Pedagogia feministak
indarkeria matxistei aurre egiteko

Patriarkatua desarmatzen hezkuntzatik eta pedagogia feministen bitartez

Hizlaria: Adriana Guzmán Arroyo

Dinamizatzailea: Ikertze

Edukien laburpena

Gure testuinguruan Estatuak ahulak dira eta ezin dituzte eskubideak bermatu, ezta haurren eskubideak ere, eta hezkuntza lehentasunetan azkena da, gizarte mugimenduentzat ere. Horregatik, hezkuntzari buruzko eztabaida birkokatu egin behar da:

- Lehenik, zera galdetu beharko genuke...Feminismoa zertarako da? Patriarkatu arrazista, kapitalista eta kolonialista suntsitzeko; izan ere, berdintasuna ez dagoela aitortu ere egin gabe berdintasunaz mintzo da sistema hau; haurrei ikasgarazten die giza eskubideak ditugula eduki ez arren, pribilegioak baitira.
- Nondik?
 - ▶ Memoriatik: irakasten dizu zer zaren, komunitatea munduan duzun lekua dela sentiarazten dizu eta aukera ematen dizu ikusteko nora zoazen hierarkiarik gabeko harremanak finkatzen dituzunean.
 - ▶ Herri hezkuntzatik: desobediente izaten erakusten dizu .
 - ▶ Hezkuntza deskolonizatuz (hori gertatzen da norberaren hizkuntza berreskuratzen denean), sexualitatearen, gorputzen eta boterearen hezkuntza deskolonizatzailea izateko.

• Eraikitzen ari diren pedagogia feminista batzuen bidez:

- ▶ Eztabaida politikoez haratago, metodologietan zentratu: nolakoak izango ziren?
Proposamena Bolivian: “5 esparrutan oinarritua (memoria, gorputza, lurraldea, denbora eta gizarte mugimenduak) eta zeharkako eredu integratua, edota hobe esanda, ezagutzaren alor guztietan”.
- ▶ Feminismoak deskolonizatu, aitortuz patriarkatuak nola eragiten duen hainbat lurraldetan. Unibertsalizatu gabe.
- ▶ Hitzak liskarrerako gune gisa: desberdintasunak eta indarkeriak izendatu bizikidetza eraiki ahal izateko. Haurrek ez dute patriarkatu txiki bat bizi, tresnak eman behar zaizkie sumatu eta ulertu dezaten dagoeneko beren gorputz eta egunerokotasunean sentitzen dutena.
- ▶ Pedagogia horien egitasmo politikoa definitzea: komunitate-kontzientzia eta -dimentsioa duten pertsonak formatu nahi dituzte. Autonomiaren eta autoeraketa kolektiboaren pedagogiak behar dira, esperantzarekin eta sistema kapitalistaren aurka jarduten dutenak, hain zuzen, afektuak, inteligentzia, trebetasunak, teknologiak eta plazera bera merkantzia bihurtzen duen sistemaren aurka. Bizitzarako denbora berreskuratzea.

- Hori ez da utopia bat eta horren erakusle dira, erresistentziak egon arren, Bolibiako hezkuntza-sisteman sartzen ari diren aldaketak:
 - ▶ Sistema plurilinguista.
 - ▶ Ekoizpenari dagokionez ere eredu komunitarioa duen sistema (adib. Baratzak eskoletan).
 - ▶ Hezkuntza despatriarkalizatua (adib. Feminismoa ikasgai gisa)
 - ▶ Fokua memoria/gorputz/lurralde/denboran jartzea (adib. "Gizarte mugimenduen historia" ikasgaia)
 - ▶ Gainerako ikasgaietan ere eragina duen zeharkako eredua.
 - ▶ Erlijio ikasgaia eraldatzea "izpiritualtasunen" ikasketara.
 - ▶ Sexu hezkuntza antipatriarkala.

Emakume eta Identitate Disidenteen ahalduntzea esparru intimoan

Hizlariak: Imaginá palabra, Carmen Ruiz Repullo, Candela cooperativa - Bandada

Dinamizatzailea: Iosune de Goñi

Edukien laburpena

Espazio intimoetan kokatzeko, erabakitzeko eta modu ahaldundu batean jokatzeko zailtasuna:

- Eraso gehienak gertuko eta konfiantzazko pertsonengandik jasotzen ditugu.
- Adeitasunaren inperioa.
- Edertasun ideal zapaltzailea, arrazismo eta heteronormatik iragazita.
- Markatzen ditugun erritmoek ez digute afektibitatera hurbiltzen uzten, ezta gure burua zaintzen ere.
- Nola negoziatuko dugu eta akordioetara iritsi erlazionatzen garen pertsonekin, oinarrian zaintza, desira, kontentzioa eta askatasuna izanik, baldin eta ez baditugu gure muga, behar eta beldurrak ezagutzen eta ez badugu gure agentziarekin ere konektatzen?

Pedagogia feministak indarkeria matxistei aurre egiteko

Estrategiak:

- Espazioak habitatzea modu ez automatikoan; benetan nola gauden esaten digun gure gorputz emotiboarekin konektatzea.
- Gure baitan presente egoteko gaitasunean sakontzeko: mugimendua, marrazketa, irudimen-inpresioa eta idazketa bezalako lengoaiak erabiltzea, aukera eskaintzen baitigute gorpuzteko eta bisualizatzeko harremanak eraikitzeke garaian hainbat esfera eta pertsonak mesede egiten diguten ala ez.
- Berdintasunaz beharrean existitzen diren desberdintasunez hitz egitea, ez isilaraztea pribilegio eta zapalketak, ezta gorputzak ere.
- Erabiltzen ditugun indarkeriak identifikatzea eta horiekiko erantzukizuna hartzea; ez potentziatzea identitate biktimizatuak.
- Espazio intimoak kolektibo edo komunitario gisa ulertzea.
- Autonomia afektiboa estrategia feminista gisa lantzea: mugak jartzea, norbere emozio eta desirak errurik gabe irakurtzea, sostengua ez emateko eta atsegin ez egiteko baimena izatea, alarma seinaleak garaiz identifikatzea.

Hezkuntza esparruan zehazki:

- Intimoa dena eskoletan lantzea adin goiztiar batean, feminismotik datozen kontzeptuak despolitizatu gabe eta intimoaren iruditeria eta onarpena edo zentsura eraikitzen duten egitura eta botere-harremanak alboratu gabe.
- Haur eta gazteei egunerokoan bizitzen eta antzematen dituzten indarkeriak proposatzea. Entzutetik lantzea horiek: zer egingo lukete horren aurrean?

- Erronboaren metodologia: lehenik espazio mistoan landu; ondoren, talde banatuetan eta, azkenik, berriro ere espazio mistoan. Isiltze sistematikoa murrizten du eta espazio seguruak sortzea erraztu.
- Matxosfera emozionala da. Mutilekin hori landu. Hezkuntza emozional kritikoa.

Erronkak:

- Gorputza bizitzako tresna gisa ikustea sentitzeko, desiratzeko, konektatu ahal izateko eta gozamenerako espazio gisa. Norberaren gorputzarekin konektatzeko beharra gainerako gorpuztasunekin konektatu ahal izateko.
- Onartzea intimoa politiko gisa. Hor betikotu egiten dira honako hauek: genero desberdintasunak, zaintza kargak, normalizatutako indarkeriak, plazera eta desira eskuratzeko desberdintasunak, baldintzatzaile zisheteronormatiboak.
- Autozaintzari espazioa ematea, ahultasunaren eta indibidualizazioaren feminismoan erori gabe.
- Identitate eta gorputz ez-normatiboekiko ikuspegi interseksionala duen hezkuntza feminista.

Protokolo gorpuztuak: Komunitatean, hezkuntzan eta kirolean

Hizlariak: Emagin, Donostia-Irun Berritzeguneak, Amarauna Basket Fem.

Dinamizatzailea: Berria FM

Edukien laburpena

Hezkuntza formalaren esparruan:

- Hezkuntza-esparruan indarkeria-egoera asko sortzen dira. Protokoloak hezkuntza etapetara egokituta daude, eta beharrezkoak dira jarduera-gida bat eskaintzen dutelako eta horrek adierazten duelako balioa ematen ari zaiola lantzen ari diren gaiari. Aurrez lan bat egin behar da.
- Irakasleen artean sentsibiltatea hazten ari da, eta horrek eragiten du ikasleek konfiantza gehiago izatea gertatzen ari dena adierazteko. Garrantzitsua da hezkuntza-esparrua babesgune bilakatzea.
- Hezkidetzatza Planak bi ardatz ditu: berdintasunerako hezkuntza afektibo-sexuala eta indarkeria matxistan prebentzioa; ezinbestekoa da biak lantzea prebentzio-lana egin ahal izateko.
- Nesken ahalduntze-prozesuak indartzeaz gain, bada berdintasunarekin konprometitutako maskulinitate bat lantzeko erronka ere. *“Manosfera eta horren iturriak ezagutu behar ditugu erreakzionarioak izan gabe erantzuteko eta zer estrategia erabili erabakitzeke”.*

Kirol-esparrua:

- Kirol-gune seguruak sortzeko beharra, izan ere, batik bat nerabezaroan babesgabeko egoerak bizitzen dira erasoan aurrean, normalean pertsona berberak eraginda. Sarritan ez dago erreferenterik eta ez da jakiten nora jo. Funtsezkoa da kirolarien artean sarea eta kontzientzia sortzea, ez isilik geratzea.
- Gizarte aldaketa bat da, izan ere, kirola esparru ez-formala da, eta hor zailagoa da jakitea mugak non dauden.
- Haurrak eta nerabeak babesteko LOPIVI legea egon arren, aplikatzeko garaian gabezia asko daude. Zer gertatzen da protokoloak aktibatzen direnean? Eta noiz aktibatzen dira?

Komunitate-esparrua:

- Erasoan kudeaketan, gauzak beste modu batera egin daitezke, komunitatetik edo kolektibotik; gainera neurriak ez dira soilik zigorrak izan behar, biktimaren babesa eta ongizatea bermatu behar dira.
- Prozesuan funtsezkoa da lantaldeak komunitatearen boterea edo aitortza izatea.
- Erasotzen duenak bere egoera eta izaera hausnartu behar ditu, ondoren, lanketa pertsonal bat egin dezan larritasunaren arabera.
- Birbiktimizatze-egoerak saihesteko nahiz erasoak jaso duen pertsonak bere bizitzarekin jarraitu ahal izatea bermatzeko neurriak hartzea.
- Kontua da justizia feminista herritik/komunitatetik sortzea.

Txokoak

Taldekako espazio hauetan, parte hartzaileak hizketan aritu ziren aurkeztutako gaien inguruan zituzten bizipen eta pertzepzioez. Saio kolektiboetan dagoeneko landuta zeuden gai horiek. Partekatutakoari buruzko gako batzuk jasoko ditugu.

Ahalduntze intimoa:

Dinamizatzailea: Sorginlore

Erronkak:

Ahalduntze intimoa politikoa eta politika dela barneratzea.

Estrategiak:

- Erlazioan inplikaturako pertsona guztien beharrak azaleratzea.
- Zaurgarritasuna publiko egitea.
- Batzar emozionalak sustatzea.
- Espazio seguruetan praktikatzea edo entrenatzea.
- Gertatzen zaigun horren kontzientzia hartzea, hitzak jartzea eta haragitzea.
- Indibiduala ahalduntze kolektiboarekin uztartzea.

Anaidetasunak eta erresistentziak

Dinamizatzailea: Hiruki Larroxa

Erronkak:

- Gizentasunaren lanketa interseksionala eta afektiboa gizon gazteekin.
- Mutilei espazio zainduak falta zaizkie genero-posizioari buruz eta maskulinitate hegemonikoaren sufrimenduaren inguruan gogoeta egiteko.

Estrategiak:

- Afektiboki positiboak diren jarrerei balioa ematea gizon gazteen praktikan.
- Ikasgelako autoritatezko helduaren eredua eta botere-harremanak birpentsatzea, rol hezitzailearen posizioa konplejizatuz.
- Irakasleen arteko aliantzak garatzea.
- Hezkuntza-zentroetan pixkanaka lekua egitea begirada birhezitzaileei eta berrezartzaileei.
- Mugak jartzea.
- Espazioaren zaintza ulertzea erantzukizun kolektibo gisa boterearen jardueran.
- Entzute sakon bat garatzeko zirkuluen metodologia.

Protokoloak:

Dinamizatzailerak: Ikertze

Erronkak:

- Oro har, oso dokumentu eta jarraibide astunak dira.
- Aktibatzerako garaian, hainbat eragileren aldetik sortzen diren erresistentziak.
- Egoera identifikatu eta argi izatea aktibatzekeo garaian.
- Hezkuntza -zentroko psikologo edo aholkulariaren figuraren garrantzia.
- Jarraipen eza.
- Maskulinitatearekin lan egiteko garaian zailtasunak eta erresistentziak.
- Ez da kontuan izaten, eta ez da sinistu ere egiten, haurren ahotsa.
- Hobeto aplikatu ahal izateko administrazio publikoen arteko lankidetzak (akonpainamendua, kasuen jarraipena...).
- Protokolo gehienetan ikuspegi indibidualista bat dago: Nola egin jauzi komunitatera?
- Denborarekin eta lasai lan egin ahal izatea.
- Jarrera aktiboagoa irakasleen aldetik.
- Benetako konponketa bilatzea.

Estrategiak:

- Esperientzia eta ezagutzen transmisioa eta trukea.
- Jarraipena egingo duen lantalde finko bat eta gazteen partaidetza duen batzorde bat izatea (ikasleak, batzorde feminista...).
- Tokiko sare bat (erakundeak, hezkuntza-zentroak, elkarteak).
- Partaidetza-prozesuen bidez protokoloak egitea.
- Baliabideen organigrama bat izatea.
- Hezkuntza-komunitatearen inplikazioa.
- Kudeaketa emozionalerako saioak.
- Pertsona hezitzaile guztientzako prestakuntza praktikoa.

Hezkidetza eta pedagogia feministen inguruko MALak

Dinamizatzailea: UEU

Txokoetako bat EHUKo eta UEUKo ikasleen Master Amaierako Lanak aurkezteko erabili zen.

1. Maddi Arana Arzak

Irakasleen gorputz dimentsioa: hausnarketa prozesua praktika pedagogiko inklusiboak hobetzeko Lehen eta Haur Hezkuntzan.

Helburua:

Irakasleek aztertzea beren gorpuztasun kontzepzioa, beren bizipena eta baita beren praktika pedagogikoekin duten harremana ere.

2. Helena Agirre Erice

Maskulinitatearen erreprodukzioa nerabezaroan: kontsumitzen dituzten sare sozialetako edukien azterketa.

Helburua:

Gazteen artean ugaritzen ari diren diskurtso antifeminista eta sexisten arrazoa ulertzea, nerabeen prozesu identitario eta hezitzailean eragiten duten eragileei arreta eskainiz (bereziki sare sozialetako edukiak).

3. Iosune de Goñi García

Ahotsik gabeko gorputzak: desgaitasuna eta gaitasuna filosofia ikasgaian.

Helburua:

Euskadiko hezkuntza sisteman desgaitasunak eta gaitasunak nola moldatzen diren aztertzea, bereziki, filosofiako ikasgaian.

4. Oihane Lazkanoiturburu Alustiza

DBHko ikasleek beren gorputzaren irudiarekin duten harremanaren ezagutza sakonduz: "Ni-rekin" hezkuntza-prebentziorako programako parte hartzaileen esperientziatik abiatuz.

Helburua:

Ikasgeletan, gorputz diskriminazio eta EPN (Elikadura Portaeraren Nahasmendua) egoerei buruz pertsona hezitzaileek ezagutza izan dezaten laguntzea.

5. Maite Bravo Llorente

Maitasun ereduen berrikuspena literatura irakaskuntzaren bidez.

Helburua:

Maitasun hegemonikoaren ereduak ikuspegi kritikotik aztertzea eta alternatibak eskaintzea kanonetik kanpo dauden obren bidez.

6. Irene Perez Zumalde

LGTBIQA+ kolektiboaren pertzepzioa DBHko zentro bateko ikasleen begiradatik.

Helburua:

LGTBIQA+ kolektiboarekiko Gipuzkoako zentro publiko bateko DBHko ikasleek duten pertzepzioa jasotzea eta zentroko ongizate-egoera orokor baten irudia marraztea.

7. Laura Martínez Martín

Nola eragiten du mainstream pornografiak EHUko Gizarte Hezkuntzako ikasleen dimentsio identitario, psikoafektibo eta harremanezkoan?

Helburua:

Gizarte Hezkuntzako ikasle gazteek pornografiarekin duten esperientziari ahotsa ematea, kontsumitzaile gisa eta kolektibo zaurgarrien etorkizuneko hezitzaile gisa, eta gakoak eskaintzea hezkuntza-eraldaketa feminista eta kritiko baterako.

8. Iria Oreja Urrutia

Desgaitasunen bat duten emakumeen sexu heziketa: Donostialdeko emakume helduen esperientzietara hurbilketa bat.

Helburua:

Desgaitasun intelektuala duten emakume helduek beren sexu heziketarekin duten erlazioaren pertzepzioa aztertzea.

9. Maitane Junguitu Dronda

Eskolan berdintasuna lantzeko tresnak: zineman oinarritutako unitate didaktikoak.

Helburua:

Aztertzea DBHko ikasleei zuzendutako zineman oinarritutako unitate didaktikoak zer neurritan diren baliagarriak genero arteko berdintasuna eta giza eskubideak ikasgelan lantzeko, eta horretarako baliabideak identifikatzea eta proposatzea euskal animazio zinemaren bidez.

10. Ainhoa Lapitz Dambolenea

Ikasketa zientifikoekiko emakumeen aukeraketa Euskadiko Autonomia Erkidegoan: egungo egoera, bilakaera eta etorkizuneko estregiak.

Helburua:

EAEn emakumeek unibertsitateko graduak aukeratzeko garaian eragina duten aldagai eta joerak ulertzea eta baita haien baldintza pertsonal eta sozialak ere.



Herri
Hezkidetzaileak

Herri Hezkidetzaileak, nola ulertzen ditugu?

Hizlariak: Oinherri Herri Hezitzaileen Sarea, Bakearen aldeko zentro zibikoak (Costa Ricako Justizia eta Bake Ministerioa)

Dinamizatzailea: Biltzen

Edukien laburpena

Herri hezkidetzaileez mintzo gara hezkuntza testuinguru akademikoez haratago baitoa eta beharrezkoa baita komunitatearen erantzukizuna eta inplikazioa.

Gakoak:

- Testuingurura, toki bakoitzeko eragile aktiboetara, egokitzea.
- Eragile guztien arteko lankidetza eta bakoitzak bere erantzukizunak onartzea.
- Ulertzea hezkuntza esparru formaletik harago doala eta herrien lana hirigintzako esku-hartzetik urrunago doala.
- Prozesuaren ikuspegia. Etengabeko esperimentazioa eta ikasketa bizitzea modu kolektiboan eta kokatuan eraikitzeo.
- Feminismotik lan egitea.
- Interseksionalitatetik aztertzea, tresnak ematen baitizkigu ulertzeko erabiltzen ditugun kategoria asko, sarritan, murriztaileak direla.

- Aitortzea haurrak eta gazteak beren bizitzaren eta gizarte eraldaketaren eragile direla. Ez dira soilik etorkizuna, baita oraina ere.
- Aisialdia modu parte hartzailean eraikitzea.

Erronkak:

- Herri hezkidetzaileak ulertzea zaintzen duten eta bakea sustatzen duten herri modura, indarkerien prebentzioari eta horien kudeaketa kolektiboari bide emanez.
- Euskal Herrian, euskara izan dadila inklusiorako zubi.
- Eragile publiko, sozial eta komunitarioen arteko lankidetza.
- Baliabideen eskuragarritasuna.

Komunitate birtualak: aukerak eta mugak

Hizlariak: Júlia Salander, Rakel Gamito

Dinamizatzailea: Alde Erantziz

Edukien laburpena

Mundu digitala gaur egun errealitatearen parte da. Espazio horren jatorria ezagutzeko beharra eta kezka areagotu da.

Mundu digitalaren arriskuak eta mugak:

- Mundu digitalean gertatzen den deshumanizazioak eragiten du garrantzi gutxiago ematea hor gertatzen diren indarkeria askori, eta oso desberdinak izan daitezkeen arren, konstanteak eta larriak izan daitezke.
- Algoritmoek oihartzun-kamerak sortzen dituzte, alegia, kontsumitzen ditugun edukiak soilik aterako zaizkigu.
- Manosfera eta incel mugimenduak kezkagarriak dira. Erlazio sexual eta afektiboetan legitimoa dena eraikitzen dute, eta gizotasun kontzeptua eguneratzen dute. Hori guztia neurri handi batean gazteengana iristen da.
- Irtenbidea da sexu heziketa integral bat jasotzea txikitatik.

Mundu digitalaren aukerak/indarguneak:

- Sareetan aktibista edo tresna oso interesgarriak daude.
- Gaur egun gazteek gehiago identifikatzen eta salatzen dute indarkeria matxista.
- Sareen demokratizazioak informatzaile eta pertsonen arteko konexioa errazten du, eta aukera eskaintzen digu ikuspegi globala errazago txertatzeko.
- Sare sozialek identitatea eraikitze eta sexualitatea garatzeko aukera irekitzen dute eta baita gazteen ahalduntze- eta agentzia-prozesuetan lagundu ere.

Hezkuntzako erronka:

- Mundu digitala errealitate bat da. Gai honek ez gaitzala kezkatu, goazen eta heldu diezaiogun!!
- Helduzentrismoa aztertzea. Gazteekin batera sareekiko jakin-mina eduki dezagun.
- Pantailen erabilera mugatzea, baina hausnartuz zertarako eta zer egin erabiltzen ez direnean.
- Hainbat tresna uztartzea eta modu dinamiko eta kritikoan egitea.
- Sakelako telefonoen geolokalizazioa familia-babeserako erabiltzeak normalizatu egiten du kontrolerako mekanismo hori nerabeen arteko erlazioetan.

Estrategia Komunitario Antirrazistak eta Feministak

Hizlariak:

Amher (Hernaniko Elkarte Multikulturala), EHko Emakume Migratuen eta Arrazializatuen Sarea eta AMUGE (Euskadiko emakume ijitoen kulturarteko elkarte)

Dinamizatzailea: Cony Carranza Castro

Edukien laburpena

Estrategia komunitarioei buruzko esperientzien eta ezagutzen trukea, aurrera egiteko herri hezkidetzailleen eraikuntza kolektiboan, hausnarketa kritiko dekolonial, antirrazista eta feministatik abiatuz.

Teoriatik praktikara pasatzeko erronkak

Ez da hain erraza bai baitaude baldintza batzuk, hain zuzen, sistema honetan dugun posizioaren emaitza direnak.

Honako honetarako beharra:

- Aitortzea Euskal Herriaren rola arrazismoaren eta kolonialismoaren eraikuntza historikoan, gaur egun ere bizirik dirauena.
- Atzerriartasun-legea politika arrazista horren parte dela salatzea (adib.: ikasketa bidezko erregularizazioa onartzen du baina soilik erdi-mailako ikasketetan, ez goi-mailako edo unibertsitateko ikasketetan).
- Pertsona arrazializatuak eta ijitoak izatea aditu eta hezitzaile gisa, ez soilik testigantza gisa.
- Gorputzetatik bereizitako kriminalizazioa legitimatzeari uztea eta aitortzea.
- Jakintzak soilik unibertsitatean edo sistema zuri eta paioak zilegitutako egituretan sortzen direla pentsatzeari uztea.

Komunitatea eraikitzekeo estrategiak

Ijito-herriarentzat komunitatea ez da asmo bat, ezta borrokekin eta baldintza materialekin hustutako kontzeptu bat ere. Praktika bat da, sostengua eta bizirauteko mekanismoa. Txirotasun-, pertsekuzio- eta erresistentzia-testuinguruetan kolektiboki antolatutako bizitza da

Herri hezkidetzaileak

Herri horrek komunitatea osatzen du bertako kideek honako hauek egitean:

- Emakumeen artean jakintzak partekatzean.
- Osasun-, haziera-, duintasun- eta erresistentzia-eskubideez hitz egitean.
- Gauza materialetan elkarren babesa dutenean.
- Komunitateen artean babesten direnean.
- Mundu akademikora ijito-erreferentziak eramatean. Memoria sistematikoki ezabatzearen aurka, beren historia aitortzea behin eta berriz eskatzen dutenean.

Pertsona arrazializatuen edota migratuen proposamenak:

- Euskara eta feminismoa zuri izatearekin erlazionatzeari uztea.
- Euskara sustatzea baita ikasle arrazializatu edo ijito portzentaje handia duten eskola publikoetan ere.
- Haur eta gazte arrazializatuak ikusi/irakurri daitezkeen material kultural eta pedagogikoak edukitzea.
- Euskal Herrian dauden sinbolo kolonialak aztertzeke eta aitortzeke garaian, hegoaldeetik datozen pertsonen ahotsak kontuan izatea.
- Espazio mistoak sortzea pertsona migratuek bizi dituzten egoerei buruz hitz egiteko. Eta aliantza ez mistoak ere sortzea.

Pertsona zurien rola

Erantzukizuna eta erreparazioa dira ardatz nagusiak pertsona zuriek sistema arrazistarekin bukatu ahal izateko. Horiekin batera errekonozimendua eta baliabideak.

Lanerako parametroak berrikusi gabe eta, hortik, praktikak aldatu gabe, ezin dira benetako estrategia antirrazistak eta komunitarioak sortu:

- Gutxiago teorizatzea eta gehiago lur hartzea.
- Etxebizitzak ematea.
- Erroldatzeak erraztea.
- Ez babestea eta ez diseinatzea estrategiak kanpotik, arrazializatutako pertsonetatik baizik.
- Baldintzak bermatzea arrazializatutako pertsonetatik edo ijitoetatik datozen proposamenek ibilbide, ikusgarritasun eta jasangarritasun hobia izan dezaten.
- Baliabideak birbanatzea.
- Espazioak uztea.
- Ez pentsatzea euskara ez dakitenik.
- Komunitate arrazializatu eta ijitoetatik bertatik sortutako esperientzia, metodologia eta hizkuntzak jakintza politiko eta profesionaltzat onartzea.
- Zehazki eskola-esparruan:
 - ▶ Ez ikusezin egitea “bullying” hitzaren atzean homofobia, transfobia, arrazismoa eta islamofobia.
 - ▶ Modu berean begiratzea haurtzaro arrazializatu, migratu eta zuriari.

Txokoak

Taldekako espazio hauetan, parte hartzaileak hizketan aritu ziren aurkeztutako gaien inguruan zituzten bizipen eta pertzepzioez. Saio kolektiboetan dagoeneko landuta zeuden gai horiek. Partekatutakoari buruzko gako batzuk jasoko ditugu.

Estrategia Antirrazistak

Dinamizatzailea: Sorginlore

Erronkak:

- Autoezagutza eta diskurtso/praktika koherentzia.
- Erruduntasunetik erantzukizunera. Erantzukizun politikoa onartzea.
- Paternalismoa zalantzan jartzea.
- Borondate politikoa: erakundeetan eta herritarren artean.
- Kalean dauden pertsonen errealitatea.
- Atzerriartasun-legea aldatzea.

Estrategiak

- Elkarrekin lan egiteko espazioak eta tarteak sortzea. Auzoetan sareak sortzea. Pertsona migratu eta arrazializatuen errealitateak ezagutzea.
- Erakundeei galdetzea. Salatzea eta aldarrikatzea, ez soilik aniztasuna ospatzea.
- Hezkuntza baliabide antirrazistak sortzea eta lantzea, harrera-planak barne.
- Beldurrari aurre egitea eta ez zabaltzea eskuin muturreko planteamenduak.
- Besteena zalantzan jartzeari utzi eta norberarena jartzea.
- Erroldatzeak erraztea.

Heldukeriak:

Dinamizatzailea: Imaginá palabra

Erronkak:

- Autoritate osasuntsuen rola itxuragabetzen dituzten errutinak (familiakoak, taldekoak, hezkuntza zentroetan...).
- Autoritateari buruzko hausnarketa introspektiboa.
- Parekoen arteko gatazkak, agresibitatearekin eta konponketarako tresna gutxirekin.
- Irakasle-rolaren errespetu eskasa.

Estrategiak:

- Hezkidetz-a autoritatea definitzea, espazio seguru eta benetako esperientzietatik.
- Kontentzioa praktikatzeko, ez baliogabetzea ezta alde egitea gatazka eta agresio uneetatik (bakarkako nahiz taldekoak), tentsio eta kaosean geratzen ikastea.
- Binkulua indartzea.
- Komunikazio errespetuzko eta afektiboa.
- Entzuteko eta erabakiak hartzeko espazioak.
- Parte izatearen zentzua indartzea, bai familian, bai ikasgelan eta bai dinamika komunitarioan.
- Umorea erabiltzea.

Komunitate Birtualak

Dinamizatzaila: Ikertze

Erronkak:

- Komunitate birtualak lehentasunezko esparrutzat jotzea eta zeharka hezkuntza-curriculumean sartzea.
- Belaunaldi arrakalak, sarritan, digitalarekiko ulertezintasuna, beldurra edo gaitzespena sortzen du.
- Mundu digitalarekiko beldurra eta oztopoak haustea, elkarriketa eta akonpainamendua zailtzen duten posizio alarmistak saihestuz.
- Hezitzaile gisa, eguneratua egotea, ingurune birtualen berezko kode, hizkuntza eta dinamikak zein diren jakitea, ezagutzatik esku hartu ahal izateko.
- Espazio birtualetan sortzen eta zabaltzen diren diskurtso negatiboak aurre egitea.
- Eduki digital ezegokiak ikustea; askotan zentsura eta kontrolatik jorratzen da, ingurune birtualekiko harreman kritiko eta autonomia garatzea zailduz.
- Presio estetikoari aurre egitea.
- Mundu birtuala asaldatzea feminismoaren bidez.

Estrategiak:

- Haur eta gazteekin kritikotasuna lantzea, esparru birtualeko eduki, diskurtso eta dinamikak aztertu ahal izateko tresnak emanez.
- Konfiantzan oinarritutako belaunaldi arteko komunikazioa sustatzea, epairik gabe, zalantzak, beldurra eta esperientziak partekatze espazio seguruak sortuz.
- Aktibismo digital feminista, gizarte-erresistentzia eta -eraldaketarako espazio gisa erabiliz sare eta komunitate birtualak.
- Erreferente feministak zabaltzea.
- Inpunitatea borrokatzea ingurune birtualetan, indarkeria digitalen aurrean jarduera-protokolo argiak sortzea sustatuz eta espazio birtual seguruak bultzatuz.
- Informazio ez-alarmista eskaintzea arriskuak ulertu ahal izateko izua zabaldu gabe, mundu digitalarekin harreman osasuntsuago eta kontzienteago bat erraztuz.
- Material erotiko eta sexu-heziketakoak sortzea, adin bakoitzerako egokiak.
- Ziberhezkidetza sustatzea.
- Sexuen hezkuntzako eredu birtual bat kolektiboki sortzea, eszenatoki digital berrietara egokitua eta partaidetzatik, zaintzatik eta feminismitik eraikia.

LGTBI+ Errealitateak


Dinamizatzaila: Emagin

Erronkak:

- Bullyingaren atzean ezkututzen diren indarkeriak: homofobia, arrazismoa, morofobia...
- Maskulinitateak eta “marikoi” kontzeptua lantzea gorputzetik eta emozioetatik.
- Lan prebentiboa. Diskurtsoetatik jarreretara.
- Lanketa integrala, hezkuntza-komunitate guztiarekin, erantzukizun sozialetik.
- Estereotipoak eta aurreiritziak hautsi, esanahi berria eman erdiguneari, marra gorriak.
- Zapalkuntza anitz bizi dituzten gurasoentzako metodologiak eta diskurtsoak.
- Irakasleen prekarizazioak eta ordezkatzeko-sistemak eragiten dute haien formakuntza ez izatea oso eraginkorra eta zentroetako ekimenek jarraipenik ez izatea.

Estrategiak:

- Jasotzen duten LGTBI+ informazio fobiko guztiari zentzua ematea; egunerokotasunean lantzea, eta ez soilik data zehatzetan.
- Materialetan gertuko erreferente berri, osasuntsu eta askotarikoak.
- Entzuteko espazio seguru eta suspertzaileak sortzea. Zirkulu berrezartzaileak.
- Bereziki mutilekin (minduta edo haserre daudenak) lan egitea, baina zainduz binarismoa ez dela erreproduzituko espazio ez mistoak sortzerakoan.
- Hitza baina haratago lan egitea artea, gorputza, mugimendua, antzerkia, umorea eta jolasa erabiliz.
- Hezkuntza-hausnarketa integral bat egitea eta sexu-hezkuntza integral bat ziurtatzea.
- Sareak sortzea eta elkar zaintzea. Aliantzak eta konplizitateak indartzea.
- Baliabideak: materialak eta denbora.
- Diagnostiko kokatuak.
- Foroak sustatzea: kontrasterako, bizipenak partekatzeko, zerk funtzionatu duen eta zerk ez...
- Zapalkuntzatik eta interseksionalitatetik lan egitea.
- Unibertsitateetatik irakasleen formakuntzari garrantzia ematea.



Ondorio orokorrak

Ondorio orokorrak

Kongresuak utzi dizkigu adibideak, inspirazioa, ideiak, praktikak, kontaktuak, baliabideak, energia eta baita galdera berriak eta erantzun gabeko galderak ere, kontraesanak, deserosotasunak eta erronkak.

Ikusi dugu indarkeria matxistek nola funtzionatzen duten (beste indarkeria eta zapalkuntza batzuekin batera mundu-sistema honetan jokoan), nola erreproduzitzen diren alderdi pertsonalean, harremanetan eta erakundeetan, eta zein den ondare eta egiturazko lotura patriarkatua- kolonialtasuna - arrazekia eta kapitalismoa.

Hortik aurrera, zein da hezkuntzaren egitasmo politikoa? Zer dira eta nola eraiki daitezke bizikidetza eta hezkuntza ikuspegi feminista, komunitario eta dekolonial batetik? Hezkidetza eta pedagogia feministek lurraldeetan kokatzen eta adiera berria hartzen dute ikuspegi lokal-global kritiko batetik?

Ikuspegi komunitarioa azpimarratu da, ezinbestekotzat bizitzarako eta eraldaketarako. Zentzu horretan, behin eta berriro adierazi da hezkuntza eskolan baina baita eskolatik haratago ere gertatzen den zerbait dela eta, beraz, askotariko eragileei eragiten diela eta aliantzak, lankidetzak eta estrategia partekatuak behar dituela. Funtsezkotzat jo da esperientzia eta ikasketen transmisioa ere.

Ondorioztatu da pedagogia feministak ez direla zerbait itxia eta mugiezina, etengabe eraikitzen ari den zerbait baizik, eta horren funtsa edukietan baino gorputzen disposizioan dagoela, alegia, gorpuztasunak espazioarekin duen harremanean eta pertsonen arteko harremanean.

Berekin dakar botere-harremanen azterketa (bereziki pertsona hezitzaile eta adin txikikoen artean, eta espazio intimoetan, betiere begirada interseksional batetik) eta praktika bat eta metodologiak eduki behar ditu honako oinarri hauekin: entzutea, desberdintasunak eta indarkeriak izendatzea, maskulinitate eta feminitate hegemonikoen praktika performatiboak identifikatzea eta desmontatzea, afektibitatean hezteak eta plazera eraldaketa-indar gisa ipintzea.

Ikertuntza akademiko kokatu gisa, jakintzen **eraikuntza kolektiboaren aldeko apustua egin da**, pertsona migratu, pertsona eta kolektibo arrazializatu eta ijito-herrien memoria, hizkuntza eta jakintzak barne hartuz. Izan ere, jakintza horiek konektatuta daude esperientzia komunitarioarekin eta desberdintasunen sistema zapaltzaile eta sortzaile/legitimatzailea zalantzan jartzen dute, hain zuzen, gailentzeko baliabideak direlako.

Behin eta berriaz adierazi da mundu digitala errealitatearen zati bat dela, errealitatearen geruza ez neutro bat. Arriskuak dituen arren, komunitate berriak sortzeko duen gaitasuna azpimarratu da, bai narratiba sortzaile gisa (historikoki isildutako subjektuen hitza) eta bai modu afektiboan.

Aipatu da prebentzioan protokoloek duten balioa eta iparrorratz direla indarkerien aurkako esku-hartzean. Hala ere, zenbait indarkeria identifikatzeko zailtasuna detektatu da, eta baita hainbat erronkaren aplikazioan ere. Edonola ere, partaidetza prozesu baten bidez egin behar dira eta horri buruzko formakuntza jaso.

Argi geratu da hezkidetza eta pedagogia feministak lur hartzeko prozesu honetan, pertsona guztiek geure burua berrikusi behar dugula, ikusi ea espazioetan egotea (edo ez) dagokigun, nola okupatzen ditugun (edo ez) geure pribilegio/opresioen eta gorpuztasunaren arabera eta gure boterea zein den aitortu behar dugula.

Oro har pertsona hezitzaileen erantzukizunari bereziki eskainiko zaio arreta, bereziki gizonezko hezitzaileei eta pertsona zuriei, aitortzarako eta erreparaziorako testuinguru batetik. Horretarako, beharrezkoa da formakuntza praktikoa, jarraitua; konplexutasuna landu eta

problematizatuko duen prestakuntza, tresnak eskaini ahal izateko eta jokatu ahal izateko kontu handiz, beldurrik gabe eta esperimentatuz, pedagogia feminista horiek sortzeko.

Azkenik, denbora eta lasaitasuna birkonkistatzeko nahia berreskuratzea eta esperantza aktiboari eustea, egoera landu ezina dela sinistarazi nahi digun sistema baten aurrean, bestetasunaren potentziazioa eta prekariedade nagusi diren testuinguru batean, sistemak sinetsarazi nahi digu ez dugula ez jakintzarik ezta agentziaren botere kolektiborik ere.

Ildo horretan, **Kongresuaren III. edizio** hau eraikuntza kolektiboko prozesu batean sortu da eta bere horretan zaintzarako, trukerako eta topaketarako gune bat izan da. Gure asmoa da IV. Kongresuak ere (2027an egingo dena) jarrai dezala kontzientziak astintzen eta artikulazioak eraikitzen eta sendotzen.

pedagogiafeministak.sorginlore.eus